



TOLOSAKO
UDALA

OHIKO OSOKO BILKURA

2020.07.30

Tolosako Udaletxean, 2020ko uztailaren hogeita hamarrean, 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabal izan da, eta eguneko gai-zerrenda aztertzeko, udal batzarkide hauek agertu dira:

Alkate-lehendakaria:

Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Begoña Tolosa Mendia
Nerea Letamendia Beloso
Jose Francisco Amantegi Zubiria
Joseba Koldo Ormazabal Lopez
Egoitz Sorozabal Iturain
Xabier Balerdi Tolosa
Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe
Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui

Aitana Amondarain Esquisabel
Aitzol Garcia Azurmendi
Olatz Artola Apezteguia
Ander Figuerido Zubiria bere izenean
eta Kristina Pelaez Errazkin andrearen
izenean.
Garbiñe Marzol Ormazabal
Xabier Martinez Quinquilla
Jose M^a Villanueva Telleria

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vazquez

Jarduneko kontuhartzailea:

Paulino Alonso Eraso

Eguneko gai-zerrenda

1. Ondorengo aktak onartzea:
2020ko maiatzaren 28ko Ohiko Osoko Bilkurakoa.
2020ko ekainaren 25eko Ohiko Osoko Bilkurakoa.
2. Tolosako kaleak garbitzeko zerbitzu-kontratuaren espedientea onartzea eta lizitazioari hasiera ematea.
3. Tolosako Udaleko 2020ko Lanpostuen Zerrenda behin behingoz onartzea.
4. 8/2020 Kreditu aldaketarako espedientea, kreditu gehigarrien modalitatean.
879/2020 Alkatetza dekretua balioztatzea.
5. Hasierako onarpena ematea 2020ko dirulaguntzen eranskinaren aldaketei 2-2020.
6. 2020ko zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatiko tasak arautzen dituen ordenantzaren akats zuzenketaren berri ematea.



TOLOSAKO
UDALA

7. 2019ko Tolosako Udal Sektorearen Kontu Publikoaren Kontu Orokorra behin betiko onartzea.
8. Udal sozietateetan eta gainerako erakundeetan kargu-uzteen eta izendapenen berri ematea.
9. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:
2020ko ekainaren 1etik 30era (2020/749-2020/977).
10. Mozioa, irregulartasun administratibo egoeran dauden etorkinentzako ezohiko erregularizazio prozedura abiaraztearen alde.
11. ORAIN ARDURA herritarren ekimenaren mozioa, Tolosako EH Bildu udal taldeak aurkeztuta.
12. Galderak eta eskaerak.

Alkate-lehendakariak batzarrari hasiera eman aurretik hona hau adierazi du:

... *“Gaurkoak ez dira inoiz bizi izan ditugun garai onenak. Aurreko plenotik hona gertakari ezberdinak izan ditugu herrian. Zenbait egun oso gogorak izan dira tentsio handikoak eta bai zerbitzu publikoan eta baita zerbitzu pribatuan ardura dugun pertsonak erabaki azkarrak hartu behar izan ditugu. Nik, neonek, izan ditudan interbentzio publiko guztietan modu berdinean hasi behar izan dut hizketan: gaur gaurkoz esanez. Izan ere, hain da egoera aldakorra, eta egoera sanitarioak gainera logikoki baldintzatzen ditu gainontzeko ekimen guztiak, derrigorrezkoa zela aurretiaz gaurkotasun hori azpimarratzea. Beraz, gaur gaurkoz, Tolosa osasun egoera on batean aurkitzen da koronabirusari dagokionez eta hori hein handi batean erakundeekin eta eragileekin elkarlanean aritu garelako izan da. Izan ere, gure egitekoak hiru oinarri inportante izan ditu: bat da elkarlana bezala eta elkarlanean kudeaketa oinarrituta. Bigarrena, erantzunkintasuna, ardura norberetik barneratzea eta hirugarrena, malgutasuna, iturri ofizialak kontuan hartzea soilik informazioa eskuratzeko eta emateko garaian. Etorkizunera begira jartzen baldin bagara, ziurtasun gutxi ikusten da oraindik ere eta hori kudeatzea ez da erreza. Gainera, egoera horrek herriaren animoan eragin zuzena du. Horregatik, osasun segurtasuna babestearen aldetik herri dinamika sustatzea ere ezinbestekoa da. Gorabeherak izango dira bidean eta elkarlanerako aukera berriak baita ere. Uste dut aipamen txiki hau beharrezkoa zela plenoa hasi aurretik, eta orain, bai, ekin diezaiogun lanari.”*

Ondoren, gai-zerrendako gaiak aztertu dituzte:

1. **ONDORENGO AKTAK ONARTZEA:**
2020KO MAIATZAREN 28KO OHIKO OSOKO BILKURAKOA.
2020KO EKAINAREN 25EKO OHIKO OSOKO BILKURAKOA.

Izenburuan aipatutako bi aktak aho batez onartu dituzte.



2. TOLOSAKO KALEAK GARBITZEKO ZERBITZU-KONTRATUAREN ESPEDIENTEA ONARTZEA ETA LIZITAZIOARI HASIERA EMATEA.

Parte-hartzeak:

- ... Patxi Amantegi Zubiria, Obra eta Zerbitzuetako zinegotzi delegatua: *“Herritarrei kale garbiketa kalitatezko zerbitzua eskeintzea du helburu, kale garbiketa zerbitzua oinarrizko eta funtsezko zerbitzua da. COVID-19aren harira, are eta garrantzitsuago bilakatu dela zerbitzu hau. Hori dela eta, egoera honetan, kale garbiketa zerbitzuak areagotu egin ditu osasun eta segurtasun neurriak zorrotz betetzeko. Herritarrei Tolosa txukun bat eskeini nahi dugu, Tolosa atsegin bat. Kale garbiketa zerbitzuaren esleipena amaitzear zenez, zerbitzua kontratatzeako pleguak prestatzeari ekin genion. Plegu berbera honetan hainbat hobekuntza txertatu ditugu, bereziki makinak berritzea, kalitatezko zerbitzua eman ahal izateko. Hori dela eta, kontratuaren aurrekontua handitu egin da, igo da 7.033.636 eurotara. Ohiko prozedura jarraituta, lehiaketa irekiaren bitartez, lau urtetarako izango da kontratu berri hau. Aurrekontua prestatzeko, Ausnartu enpresaren aholkularitza izan dugu, enpresa honek azterketa ekonomikoa egin du, lan legedia eta aurreikusitako kostuak izan dira kontuak, kontu pertsonalarenak, soldatak eta makinak amortizatua, besteak beste. Langilearen lan egonkortasuna bermatzeko eta ziurtatzeko, gizarte klausulak ere jaso dira pleguetan langileek lan baldintza egokiak izan ditzaten, sektoreari dagokion hitzarmena aplikatuko dela. Eguneroko kale garbiketaz gain, larunbateko azokaren garbiketaren lanak ere kontratu berean txertatu dira. Kontratuaren zenbatekoa eta iraupena dela eta, osoko plenoari dagokio lizitazioaren hasierari onarpena ematea. Hori dela eta, ekarri da osoko bilkura honetara”.*
- ... Jose M^a Villanueva Telleria (PSE-EE): *“Baloratu nahi dut egindako esfortzua. Ikusi dut ze konplexua den gauzak ateratzea, zenbat plan, makinaria berriak, eskaerak, behar asko daude. Azkenean, herritarren eskaera da garbiketa ariketa sakona behar duela herriak, paretak eta zenbait elementu aspalditik daude garbiketa sakona behar duenak. Badakit arazoa konplexua dela. Nire ustez, baloratu egin behar da egindako lana, lan handia egin baita plegu hauek ateratzeko.”*
- ... Ander Figuerido Zubiria (EHBILDU): *“Argi daukagu Administrazio publikoak arduraz jokatu behar dugula langilegoaren baldintzak duintze aldera. Horregatik eskatu genuen, orain eztabaidatzen ari garen kale garbiketaren kontratazioaren kasuan, langileen egonkortasun eskaera handitzea. Bidezkoa iruditzen zaigu gutxienez langileen %60a finkoak izatea eskatzea, aurreikusten zen %30aren aldean, eta uste dugu hemendik aurrerako kontratazioetan ere kontuan izateko baldintza bat izan behar duela. Lan duinak lortze aldera, instituziook gure alea jarri behar dugu. Euskal Herriko administrazio publikoan lan handia dugu oraindik aldibaterakotasuna gutxitzeko, gaur egun %40koa baita. Eta langileria publikoan ezezik, sektore pribatukoak ere bide horretan jarri behar ditugu eta, gutxienez, administrazioak kontratatutako zerbitzuetan helburu hori lortze aldera lan egin beharko genuke. Horregatik, alde horretatik pozten gara, elkarlan zantzu txikia izanda ere, gure eskaria jaso duzuelako.”*



TOLOSAKO
UDALA

Gai honetan, 2020ko uztailaren 29an, 2020/005815 erregistro zenbakia duen idatziaren bitartez, Udalbatza osatzen duten hiru taldeek honako **EMENDAKIN ADOSTU** hau aurkeztu zuten:

“1. Baldintza Administrazioen Pleguaren 12. klausularen idazketa, lan egonkortasunari dagokiona, aldatzea:

Jatorrizko testua:

Lan egonkortasuna.

Egikaritze baldintza bezala, lana egin behar duten langile mugagabeen kopurua gutxienez % 30ekoa izatea ezartzen da.

Enpresa esleipendunak, kontratua gauzatzeko, baldintza berezi gisa onartuko du proiektua gauzatzeko duten langileen kontratuari dagokion indarreko azken hitzarmen kolektiboak (enpresakoa, sektoriala edo lurraldekoa) ezarritako lan-baldintzak aplikatzeko betebeharra. Horrek ez du esan nahi ezin duenik hobekuntzarik sartu hitzarmen horretan xedatutakoaren gainean. Hitzarmen kolektiborik egon ezean, lizitatzailerak gutxieneko lan- baldintza batzuk ezarri ahal izango ditu.

Zuzenketaren araberrako Testu berria:

Egikaritze baldintza bezala, lana egin behar duten langile mugagabeen kopurua gutxienez % 60koa izatea ezartzen da.

2. Halaber, 1. Eranskinaren 24. puntua zuzentzea, honako eran:

Jatorrizko testua:

Lan motatakoak:

- Plantillaren lan-egonkortasuna, kontratua gauzatzen duten langile guztien plantilla mugagabearen gutxieneko ehunekoa 30ekoa izango dela ezarrita.

Zuzenketaren araberrako testu berria:

- Plantillaren lan-egonkortasuna, kontratua gauzatzen duten langile guztien plantilla mugagabearen gutxieneko ehunekoa 60koa izango dela ezarrita.

Batzarkideek, adostutako emendakina bozkatu dute, eta bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lope, Egoitz Sorozabal



TOLOSAKO
UDALA

Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria bere eta Kristina Pelaez Errazkin zinegotziaren izenean, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria

Beraz, Udalbatzak, aho batez, **onartu du** udal taldeek aurkeztutako emendakin adostua.

Ondoren, plenoko kideek bozkatu dute Antolakuntza Batzordeak onartutako irizpena, onartutako zuzenketa sartu ondoren:

**ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO 2020KO UZTAILAREN 22KO IRIZPENA,
ONARTUTAKO ZUZENKETAREKIN ALDATUTA**

GAIA: ONARTZEA TOLOSAKO KALEAK GARBITZEKO ZERBITZU-KONTRATUA ARAUTUKO DUEN ESLEIPENAREN KONTRATAZIO JARDUNBIDEA, ETA LIZITAZIOARI HASIERA EMATEA.

I.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

Kontratuaren xedea:	Tolosako kaleak garbitzeko zerbitzu-kontratua.
Unitate sustatzailea:	Obra eta Zerbitzuetako Azpisaila
Espedientea:	2020SABI0007

II.- AURREKARIAK

Lehena.- Tolosako Udaleko Obrak eta Zerbitzuetako Azpisaileko teknikariak 2020ko uztailaren 16an egindako txostenean, aipatutako xedea duen zerbitzu-kontratuaren egoerari buruzko azalpenak eman zituen eta kontratazio jardunbideari hasiera eman zion. Bertan, jardunbidea burutu ahal izateko, honako hauek eskatu zituen: Administrazio Baldintza Partikularren Plegua; Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua; baliabide nahiko ez izateari buruzko txostena; kontratua justifikatzeko memoria; eta Idazkaritzaren eta Kontuhartzaitzaren txostenak.

Bigarrena.- 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituenak (SPKL



hemendik aurrera), V. Kapituluaren (308. artikulutik aurrera), zerbitzu kontratuei buruzko xedapenak ematen ditu; horien artean, edukia eta limiteak, prezioa kalkulatzeko era eta kontratistaren erantzukizuna.

Hirugarrena.- Txosten berean, kontratuaren xehetasunak aipatzen zituen, beste batzuen artean: kontratuaren xedea, proiektuaren eremua, jarduketaren helburuak, kontratuaren prezioa, kontratua gauzatzeko epea eta egin beharreko lanak.

Laugarrena.- Halaber, aipatutako txostenean, SPKLren 28. artikuluan xedatutakoa betetzearren, kontratuaren egokitasuna eta beharra arrazoitzen dira. Aipatutako legeak hau zehazten du 28. artikuluan:

Kontratuaren premia eta egokitasuna, eta efizientzia kontratazioan. 1. Sektore publikoko erakundeek beren helburu instituzionalak betetzeko eta gauzatzeko behar diren kontratuak egingo dituzte, ez besterik. Horretarako, zehatz-mehatz zehaztu behar dira egitekoa den kontratuaren bidez bete nahi diren premien izaera eta hedadura, bai eta kontratuaren objektua eta edukia premia horiei erantzuteko egokiak diren edo ez ere, prozedura ireki edo murriztuaren edo publikitatez gabeko prozedura negoziatuaren bidez adjudikatzen denean. Horren guztiaren berri jaso beharko da kontratua prestatzeko dokumentazioan, kontratua adjudikatzeko prozedurari ekin aurretik.

III.- KONTRATAZIO-ESPEDIENTEA, KONTRATUAREN IZAERA ETA KAUDIMENA

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, 116.1 artikuluan xedaturikoa kontuan hartuz, esleipen-jardunbidea osatzen duten izapideak hasi baino lehen, kontratazio-espeditentea osatu behar da. Espeditentea, aipatutako Legearen 116.3 artikulua ezarritakoaren arabera egin da, eta 117. artikulua xedatzen duenaren arabera onartu beharko da, esleipen-jardunbideari hasiera emanez.

Espeditentea aztertu ondoren, honako dokumentuok dituela egiaztatzen da:

- Obrak eta Zerbitzuetako Azpisaileko buruak egindako kontratazio-proposamena.
- Berezko baliabideak ez izatearen justifikazioa jasotzen duen txostena.
- *Asmatu* enpresak egindako azterketa ekonomikoa.
- Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua.
- Administrazio Baldintza Partikularren Plegua.

Halaber, espeditentea osatu beharko da udal kontuhartzailearen txostenarekin.

Kontratu honek administrazio-izaera du, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, 25.1 artikulua a) atalean xedaturikoarekin bat etorrira; zerbitzu kontratua hain zuzen ere, aipatutako Legearen 17. artikuluan xedaturikoaren arabera, non hau zehazten duen:

Zerbitzu-kontratuak objektu hau dutenak dira: jarduera bat garatuz prestazioak ematea



edo obraz edo horniduraz bestelako emaitza bat lortzera bideratutako prestazioak ematea; halako kontratuen artean daude, besteak beste, adjudikazioduna zerbitzuak hurrenez hurren eta prezio unitario baten truke ematera behartzen den kontratuak. Ezin dira kontratu horien objektu izan botere publikoei dagokien aginteaz baliatzea eskatzen duten zerbitzuak.

Bestalde, zerbitzu-kontratu honetan honako hau kontuan izan behar da:

Lehen.- Kontratu honetan aurreikusitako **balio zenbatetsia 7.033.636,36 eurokoa da**, aintzat hartuta 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, 101.1.a). artikuluan xedaturikoa.

Lizitazioaren zenbatekoa (BEZik gabe)	5.861.363,64 €
Aurreikusitako aldaketen zenbatekoa %20 (BEZik gabe)	1.172.272,73 €
Luzapenak (BEZik gabe)	0 €
BALIO ZENBATETSIA, GUZTIRA	7.033.636,36 €

Bigarrena.- Kontratazio honetan **ez da lotetan banatzea aurreikusi**, eta hori justifikatu da espedientean. Hauexek dira lotetan ez banatzeko arrazoiak: kontratuaren xedean jarduketa integrala eskatzen denez, eta kontuan hartuta kontratuaren xede diren jarduera eta lan guztiak espazio fisiko berean garatuko direla, ez da egokia hura lotetan banatzea; izan ere, kontratuaren xedean jasotako hainbat prestazio modu independentean egiteak zaildu egingo luke hura ikuspegi teknikotik behar bezala gauzatzea. Era berean, koordinazioa beharrezkoa da kontratuko hainbat prestazioren exekuzioan, eta, horiek lotetan banatuz gero, horiek gauzatzea ezinezkoa izango litzateke, edo, gutxienez, jarduketa eraginkor, garden eta osoaren printzipioekin talka egingo luke.

Hirugarrena.- Zerbitzu-kontratuak 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak (SPKL), 19. artikuluan xedatutakoaren arabera, araudi harmonizatuari loturik egon daitezkeen kontratuak izan daitezke; kasu honetan, 22. artikulua xedatzen duen kontratuaren balio zenbatetsia gainditzen duenez (214.000,00 €), araudi horretara dago lotuta; beraz, **arau harmonizatupeko kontratua da hau**. Horrenbestez, lizitazioaren iragarkia, **kontratatzaillearen profilean argitaratzeaz gain, Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialaren Gehigarrian ere argitaratu behar**ko da.

Laugarrena.- SPKLren 44.1 a) artikulua xedaturikoaren arabera, kontratazioari buruzko errekurtsu berezia tartekatu ahal izango da, balio zenbatetsiak 100.000,00 euroko kopurua gainditzen badu; beraz, kasu honetan atalase hori gainditzen duenez, **kontratazioari buruzko errekurtsu bereziaren menpe egongo da lizitazioa**. Horrenbestez, SPKLren 153. artikuluan xedatutakoa jarraituz, kontratua ezingo da formalizatu adjudikazioaren jakinarazpena lizitatzaillei eta hautagaiei bidaltzen zaienetik hasita hamabost egun balioduneko epea igaro baino lehen.



Bosgarrena.- Bestalde, Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren I. tituluaren IV. Kapituluaren eta horren I. Eranskinaren 11. atalean jasotzen dira kaudimenari buruzko baldintzak, SPKLk 86., 87., eta 90. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Seigarrena.- Halaber, eta ordainagiriaren ordainketari dagokionez, kontuan hartu beharko da aipatu legearen 198.4 artikuluan xedaturikoa:

4. Obra-ziurtagiriak onartu ondoren, edo ondasunak nahiz zerbitzuak kontratuan xedatutako moduan entregatu eta eman direla egiaztatzen duten agiriak eman ondoren, hogeita hamar egun izango ditu Administrazioak prezioa ordaintzeko, hargatik eragotzi gabe 210. artikuluan 4. apartatuan ezarritako epe berezia; Administrazioa prezioa ordaintzen atzeratzen bada, berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak ordaindu behar dizkio kontratistari epe hori igarotakoan, Merkataritza-eragiketarako Berankortasunaren aurkako Neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legearen arabera. Interesak sortzeko epea abiarazteko, kontratistak bete egin behar du faktura dagokion administrazio-erregistroan garai eta modu egokian aurkezteko betebeharra, faktura elektronikoari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzetan. Betebehar hori hogeita hamar eguneko epean bete behar du, salgaiak egiaz entregatu edo zerbitzua egiaz eman duen egunetik aurrera.

IV.- ESPEDIENTE MOTA

SPKLk 116., 119. eta 120. artikuluetan xedatutakoaren arabera, kontratazio-espeditentak hiru eratakoak izan daitezke, hain zuzen ere, arruntak edo ohikoak, presakoak eta larrialdietakoak. Presakoak, 119. artikuluan arautzen dira honako honen arabera: “Presako izapidetzea erabili ahal izango da atzera ezineko premia daukaten kontratuen espeditentak edo interes publikoa dela-eta kontratuen adjudikazioa bizkortu beharra dutenak izapidetzeko. Horretarako, kontratazio-organoak egindako urgentzia adierazpena eduki behar du espeditentak, behar bezala arrazoitua”. Halaber, presakotzat jotzeak legean zehaztutako lehentasun-ondorioak eta epeen murrizketa dakartza.

Larrialdietakoak, aldiz, 120. artikuluan arautzen dira, ondorengoaren arabera: “Edo hondamendiak gertatu direlako edo arrisku larria sortzen duten egoerak daudelako edo Estatuko defentsari eragiten dioten premiak daudelako Administrazioak berehala jardun behar badu...”.

Kasu honetan, ez da Legearen 119. eta 120. artikuluek xedaturiko ziorik, beraz, kontratazio-espeditente hau **ohiko tramitazioaren** bidez izapidetuko da, Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren Agiriaren 18. klausulan xedatzen den legez eta kontratu honen unitate sustatzaileak adierazitakoarekin bat etorriz.

V.- KONTRATUAREN EZAUGARRIAK

Epea: Lau urteko iraupena izango du, aurreikusitakoaren arabera, 2020ko azaroaren 1etik 2024ko urriaren 31ra arte.



Balio zenbatetsia: SPKLren 101. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, balio zenbatetsia kalkulatzeko indarrean dagoen lan-legeriak aurreikusitako kostuak izan dira kontutan. Gainera zerbitzuen exekuzio materialarengatik eratorritako kostuak eta industria-etekina izan dira kontutan; zehazki, zerbitzua gauzatzeko atxikitako pertsonalaren soldadak eta ordainsariak. Hori guztia kontuan hartuz, kontratuaren balio zenbatetsia **7.033.636,36** eurokoa da.

Lizitazioaren zenbatekoa (BEZik gabe)	5.861.363,64 €
Aurreikusitako aldaketen zenbatekoa %20 (BEZik gabe)	1.172.272,73 €
Luzapenak (BEZik gabe)	0 €
BALIO ZENBATETSIA, GUZTIRA	7.033.636,36 €

Urte 1 BEZik gabe	Urte 1 BEZarekin	4 urte BEZik gabe	LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA 4 urte BEZarekin	Aurreikusitako aldaketak	BALIO ZENBATETSIA
1.465.340,91	1.611.875,00	5.861.363,64	6.447.500,00	1.172.272,73	7.033.636,36

Pleguarekin batera, ASMATU enpresak egindako azterketa ekonomikoa jaso da. Azterketa horretatik abiatuta, lizitazioaren erreferentzia ekonomiko guztiak lortu dira, lau urterako kalkulaturik. Azterketa ekonomiko hori lizitazio hau arautzen duen dokumentazioaren zati banaezina da.

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua: 6.447.500,00 euro; horietatik, 5.861.363,64 euro printzipalari dagozkio, eta 586.136,36 euro, BEZari (% 10).

Aurrekontuaren partida:

Kontratuaren xede diren lanak, **700.227.01.163.00 2020** eta **1100.227.01.431.10** udal aurrekontu-partiden kargura finantzatu dira. Beraz, Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua

	Hilabeteak	Kuota, BEZik gabe	Kuota, BEZarekin
2020	2	244.223,48	268.645,83
2021	12	1.465.340,91	1.611.875,00
2022	12	1.465.340,91	1.611.875,00
2023	12	1.465.340,91	1.611.875,00
2024	10	1.221.117,42	1.343.229,17
TOTAL	48	5.861.363,64	6.447.500,00

Orientazio gisa, kontratua 2020ko azaroaren 1ean hasia aurreikusten da.

gauzatzeak eragingo dizkion betebeharrak ekonomikoei aurre egiteko aipaturiko aurrekontu-partiden kargura. Halaber, hurrengo urteetako aurrekontuetan dagokion zenbatekoa gorde beharko du dagokion partidetan, kontratuak eragingo dituen gastuak ordaindu ahal izateko.

Esandakoaren arabera, kontratua udal aurrekontuko bi partidaren kargura ordainduko da; lehenengoa, 700.227.01.163.00 2020 partida da, gaur egun dauden datuen arabera kontratuaren prezioaren % 97 hartzen duena; eta, beste alde batetik, 1100.227.01.431.10 partida dago, kontratuaren prezioaren % 3 hartzen duena eta larunbateko ohiko merkatuen garbiketaren kontzeptuan egiten diren ordainketak jasotzen dituen. Bi



kontzeptuak argi bereizteko eta dagozkion gastuak egotzi ahal izateko, esleipendunak bi faktura aurkeztuko ditu hileroko: bata, larunbatetako asteko merkatuaren garbiketa arruntaren kontzeptuan, eta bestea, garbiketa orokorraren kontzeptuan.

VI.- ESLEIPENA EGITEKO JARDUNBIDEA ETA MODUA

Proposatutako kontratazioari SPKLn jasotako esleipen-jardunbide eta moduak ezarriko zaizkio; hain zuzen ere, 131.2 artikulua xedatzen dituenak. Artikulu horrek honela dio: *“Normalean, kalitate-prezio erlazio onenaren printzipioan oinarritutako adjudikazio irizpide ugari erabiliz adjudikatuko dira kontratuak, eta prozedura irekia edo prozedura murriztua erabiliz, salbu eta...”*.

Kontratu honen organo eskudunaren erabakiaren kalterik gabe, bidezkoa da espediente honetan **jardunbide irekia** erabiltzea, gardentasuna, publikitatea, eraginkortasuna eta diskriminazio ezaren printzipioak bermatzeko, hala, proposamen tekniko eta, batik bat, ekonomiko onuragarriagoak jasoko direla iritzi delako, lehia printzipioan oinarrituta. Hori betiere, SPKLren 156., 157., 158. eta 159. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz egin beharko da.

Bestalde, kontratuaren ezaugarriak kontuan izanik, esleipena irizpide bat baino gehiago erabiliz egitea proposatu da, eta Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren 20. klausulan eta haren I. eranskinaren 10 eta 19 idatz-zatietan zehaztutako irizpideen arabera balioetsiko da, SPKLren 145. eta 159. artikuluek aurreikusitakoa betez, kontratuaren xedearekin lotura baitute. Kasu honetan, zifra edo ehunekotan baloratu daitezkeen irizpideak ehuneko 51 dira, zifra edo ehunekotan baloratu ezin daitezkeenak, berriz, ehuneko 49.

Azkenik, berme-epeari dagokionez, SPKLren 111.5 azken idatz-zatian xedaturikoa betez, urtebetean finkatu da, kontratuaren balio zenbatetsiak 1.000.000 euroko kopurua gainditzen baitu.

VII.- ADMINISTRAZIO BALDINTZA PARTIKULARREN PLEGUA ETA PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN PLEGUA

Kontratazio-espedientearekin batera, kontratu hau araupetzeko proposatu den Administrazio Baldintza Partikularren Plegua eta Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua aztertu dira, kontuan harturik SPKLren 122. eta 124. artikuluetan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra arautzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 67. eta 68. artikuluetan ezarritakoa, eta egiaztatu da araututako xedapenekin bat datozeela.



VIII.- KONTRATAZIO-ORGANOA

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere.

1. Toki-entitateetako alkateen eta lehendakarien eskumena izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek guztiak: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta administrazio-kontratu bereziak, baldin eta haien balio zenbatetsia ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino gehiago ere; berdin gertatuko da urte anitzeko kontratuen kasuan ere, haien iraupena ez bada lau urtekoa baino luzeagoa, balizko luzapenak barne, eta, betiere, urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino gehiago ere.

2. Osoko Bilkuraren eskumena izango da, kontratazio-organo den neurrian, aurreko apartatuan aipatutako kontratuak egitea kontratuaren balioagatik edo iraupenagatik toki-entitateetako alkatearen edo lehendakariaren eskumena ez denean aurreko apartatuak xedatutakoarekin bat. Halaber, Osoko Bilkurari dagokio lege honen 121. artikuluan aipatzen diren administrazio-klausula orokorren agiriak onestea.

Kasu honetan, kontratuaren balio zenbatetsia 7.033.636,36 eurokoa denez, aipatutako aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa da; beraz, **Udaleko Osoko Bilkura da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna.**

Baina behin kontratazio jardunbidea onartuta eta lizitazioari hasiera emanda, **proposatzen da Osoko Bilkuraren eskumenak Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzea, kontratuaren bukaera arte**, eraginkortasun eta bizkortasun arrazoiengatik, eta 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 22.4. artikuluan xedatutakoaz baliatuz.

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLren 190.eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Tolosako Udaleko Antolakuntza Batzordeak, 2020ko uztailaren 22an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Nerea Letamendia Belloso, Begoña Tolosa Mendia eta Jose Mari Villanueva Tellería.

Abstentzioak: Ander Figuerido Zubiria eta Garbiñe Marzol Ormazabal.



Aurreko guztia aintzat harturik, idazkariaren eta kontuhartzailearen aldeko txostenak ikusita, kontratu honen organo eskudunari honako erabaki hauek hartzea proposatu zaio, haren ebazpenaren kalterik gabe:

IRIZPENA

Lehena.- Tolosako kaleak garbitzeko zerbitzu-kontratuaren espedientea onartzea eta lizitazioari hasiera ematea.

Bigarrena.- Kontratu honen ezaugarriak onartzea:

Epea: Lau urteko iraupena izango du, aurreikusitakoaren arabera, 2020ko azaroaren 1etik 2024ko urriaren 31ra arte.

Balio zenbatetsia: SPKLaren 101. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, balio zenbatetsia kalkulatzeko indarrean dagoen lan-legeriak aurreikusitako kostuak izan dira kontutan. Gainera zerbitzuen exekuzio materialarengatik eratorritako kostuak eta industria-etekina izan dira kontutan; zehazki, zerbitzua gauzatzeko atxikitako pertsonalaren soldatak eta ordainsariak. Hori guztia lontan hartuz, kontratuaren balio zenbatetsia **7.033.636,36** eurokoa da.

Lizitazioaren zenbatekoa (BEZik gabe)	5.861.363,64 €
Aurreikusitako aldaketaren zenbatekoa %20 (BEZik gabe)	1.172.272,73 €
Luzapenak (BEZik gabe)	0 €
BALIO ZENBATETSIA, GUZTIRA	7.033.636,36 €

Urte 1 BEZik gabe	Urte 1 BEZarekin	4 urte BEZik gabe	LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA		BALIO ZENBATETSIA
			4 urte BEZarekin	Aurreikusitako aldaketak	
1.465.340,91	1.611.875,00	5.861.363,64	6.447.500,00	1.172.272,73	7.033.636,36

Pleguarekin batera, ASMATU enpresak egindako azterketa ekonomikoa jaso da. Azterketa horretatik abiatuta, lizitazioaren erreferentzia ekonomikoa guztiak lortu dira, lau urterako kalkulaturik. Azterketa ekonomikoa hori lizitazio hau arautzen duen dokumentazioaren zati banaezina da.

Lizitazioaren oinarri-aurrekontua: **6.447.500,00 euro**, horietatik, 5.861.363,64 euro printzipalari dagozkio, eta 586.136,36 euro, BEZari (% 10).



Aurrekontuaren partida:

Kontratuaren xede diren lanak, **700.227.01.163.00 2020** eta **1100.227.01.431.10** udal aurrekontu-partiden kargura finantzatzeko dira. Beraz, Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua

	Hilabeteak	Kuota, BEZik gabe	Kuota, BEZa barne
2020	2	244.223,48	268.645,83
2021	12	1.465.340,91	1.611.875,00
2022	12	1.465.340,91	1.611.875,00
2023	12	1.465.340,91	1.611.875,00
2024	10	1.221.117,42	1.343.229,17
TOTAL	48	5.861.363,64	6.447.500,00

Orientazio gisa, kontratua 2020ko azaroaren 1ean hasia aurreikusten da.

gauzatzeak eragingo dizkion betebeharrak ekonomikoei aurre egiteko aipaturiko aurrekontu-partiden kargura. Halaber, hurrengo urteetako aurrekontuetan dagokion zenbatekoa gorde beharko du dagokion partidetan, kontratuak eragingo dituen gastuak ordaindu ahal izateko.

Esandakoaren arabera, kontratua udal aurrekontuko bi partidaren kargura ordainduko da; lehenengoa 700.227.01.163.00 2020 partida da, gaur egun dauden datuen arabera kontratuaren prezioaren % 97 hartzen duena; eta, beste alde batetik, 1100.227.01.431.10 partida dago, kontratuaren prezioaren % 3 hartzen duena eta larunbateko ohiko merkatuen garbiketaren kontzeptuan egiten diren ordainketak jasotzen dituena. Bi kontzeptuak argi bereizteko eta dagozkion gastuak egotzi ahal izateko, esleipendunak bi faktura aurkeztuko ditu hileroko: bata, larunbatetako asteko merkatuaren garbiketaren aruntaren kontzeptuan, eta bestea, garbiketa orokorraren kontzeptuan.

Hirugarrena.- Onartzea kontratua gauzatzeko erabiliko diren Administrazio Baldintza Partikularren Plegua eta Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua, honako zuzenketa honekin:

1. Baldintza Administrazio Pleguaren 12. klausularen idazketa, lan egonkortasunari dagokiona:

Lan egonkortasuna.

Egikaritze baldintza bezala, lana egin behar duten langile mugagabeen kopurua gutxienez % 60koa izatea ezartzen da.

2. Halaber, 1. eranskinaren 24. puntua zuzentzea:

Lan motatakoak:

- Plantillaren lan-egonkortasuna, kontratua gauzatzen duten langile guztien plantilla mugagabearen gutxienezko ehunekoa 60koa izango dela ezarrita.



TOLOSAKO
UDALA

Laugarrena.- Kontratazio-jardunbideari hasiera ematea (jardunbide irekia) eta dagokion iragarkia argitaratzea Euskadiko Kontratatzailearen Profilean eta Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean, lizitatzailerek beren proposamenak 40 egun naturaleko epean aurkez ditzaten, iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Bosgarrena.- Behin kontratazio jardunbidea onartuta eta lizitazioari hasiera emanda, Osoko Bilkuraren eskumenak Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzea, kontratuaren bukaera arte, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 22.4. artikuluan xedatutakoaz baliatuz.

Seigarrena.- Erabaki horiek jakinaraztea Obrak eta Zerbitzuetako Azpisailari, Ogasun eta Finantza Administrazioako Sailari eta Idazkaritza Orokor, Kontratazio eta Ondarearen Azpisailari.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria bere eta Kristina Pelaez Errazkin zinegotziaren izenean, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria

Beraz, Udalbatzak, aho batez, **onartu du** Tolosako kaleak garbitzeko zerbitzu-kontratuaren espedientea eta lizitazioari hasiera ematea.

3. TOLOSAKO UDALEKO 2020KO LANPOSTUEN ZERRENDA BEHIN BEHINGOZ ONARTZEA.

ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO 2020KO UZTAILAREN 22KO IRIZPENA

AURREKARIAK

Administrazio Publikoek, horien artean udalek, beren zerbitzura dituzten giza baliabideak egituratzeko antolaketa instrumentu bat behar dute, eman behar dituzten zerbitzu beharren arabera eta lanpostu bakoitzak eduki behar dituen gutxieneko betebeharrak batzuen baitan. Aipaturiko instrumentu hori Lanpostuen Zerrenda da eta bertan, Tolosako



TOLOSAKO
UDALA

udalak duen lanpostuen zerrenda eta lanpostu bakoitzak duen eduki eta ezaugarriak azaltzen dira.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Lehena.- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 30ekoak, Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutua arautzen duenak, 74. artikuluan ezartzen duenez, “*Administrazio publikoek lanpostuen zerrenden bitartez edo antzeko antolaketa-tresnak erabilita egituratuko dute beren antolamendua*”. Tokiko entitateei dagokienez, beren burua antolatzeke ahalaren beste adierazpen bat da, Tokiko Autonomiaren Europako Gutunak 6.1 artikuluan aitortua.

Lanpostuen Zerrendek jaso beharko dute, gutxienez:

- Lanpostuaren izena.
- Sailkapen profesionalean zein Taldetakoa den.
- Lanpostuaren eskala.
- Lanpostua betetzeko modua.
- Ordainsari osagarriak.

Lehen aipatutako 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 75., 76. eta 77. artikuluetan arautzen dira langile funtzionarioak nahiz lan-kontratukoak sailkatzeke irizpideak.

Bigarrenik.- 6/1989 Legeak, uztailaren 6koak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, 13. artikuluan eta hurrengoetan arautzen ditu Lanpostuen Zerrendak, honela:

- Administrazio Publikoetako Lanpostuen Zerrenden xedea da: barne-egiturak arrazionalizatzea eta ordenatzea, langile-premiak finkatzea, lanpostuetan jarduteko eskatutako baldintzak zehaztea eta lanpostu bakoitza sailkatzea.
- Lanpostuen Zerrendek lanpostu guztiak jaso behar dituzte, aurrekontuan dotazioa duten guztiak, funtzionarioentzat, lan-kontratuko langile finkoentzat eta behin-behinekoentzat gordetakoak bereiziz.
- Lanpostuen Zerrendek honako hauek adieraziko dituzte lanpostu bakoitzeko: lanpostuaren izena; saila; dedikazio-erregimena; lanpostua betetzeko eskatutako baldintzak, horien artean hizkuntz eskakizuna; sailkapen-taldea, eskala, azpieskala edo kategoria lan-kontratuko langileak direnean; osagarriak (destinokoa eta espezifikoa), eta lanpostua betetzeko modua.

Hirugarrenik.- 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, tokiko entitateak behartzen ditu antolakundean dituzten lanpostu guztien zerrenda osatzera, lehen azaldutako funtzio publikoari buruzko oinarritzko legerian aurreikusitakoren arabera. Halaber, Lege honen 90.1 artikulua xedatutakoaren arabera, Toki-korporazio bakoitzari dagokio urtero, aurrekontuaren bidez, langileen plantilla onartzea. Zerrenda horretan funtzionarioen, eta lan-kontratuko eta behin-behineko langileen lanpostu guztiak jaso beharko dira.



TOLOSAKO
UDALA

Aurrekoarekin kontsonantzian, 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak, apirilaren 18koak, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen Testu Bategina onartzen duenak (aurrerantzean TATB), xedatzen du lanpostuen zerrendek beti jaso beharko dutela funtzio publikoari buruzko oinarrizko legerian aurreikusitako edukia, eta 7/1985 Legeko 90.2 artikuluan ezarritako arauen arabera prestatuko dela. TATBko 126. artikulua, 1. 2. eta 3. paragrafoetan arautzen du plantilla prestatzeko eta aurrekontuan onartzeko modua, zehazten du plantillan sartuko direla dotazio ekonomikoa duten plaza guztiak eta azaltzen du plantilla aldatzeko prozedura.

ORDEZKARITZA SINDIKALAREKIN NEGOZIAZIOA

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duenak, 37.1 artikulua c) atalean xedaturikoaren arabera, giza baliabideetako instrumentuen irizpide orokorrak pertsonalaren ordezkariekin negoziatu behar dira, beti ere Administrazio bakoitzaren eskumenen barruan, eta legez dagokion hedaduraz. Zentzu horretan, lanpostu zerrendaren aldaketa hau, ordezkari sindikalekin negoziatu behar da.

ONARTZEKO PROZEDURA

- Batetik, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.1 i) artikulua arabera, Udalbatzak eskuduntza du gai hau onartzeko.
- Bestetik, TATBren 127. artikulua baitan, plantilla organikoaren prozedura berdina jarraituz, behin udalbatzak onartu ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaleko web orrian argitaratu eta 15 lanegunetako epean informazio publikoan eduki beharko da onartutako akordio hau. Alegaziorik ez badago, hau onartutzat joko da behin-betiko izaeraz.

Hori guztia kontuan hartuta, hau da egiten den

PROPOSAMENA

Lehenik.- 2020. urteko Udaleko Lanpostu Zerrenda onartzea.

Bigarrenik.- Akordio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko web orrian argitaratzea, 15 lanegunetan jendaurrean egon dadin.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:



TOLOSAKO
UDALA

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria bere eta Kristina Pelaez Errazkin zinegotziaren izenean, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria

Beraz, Udalbatzak, aho batez, erabaki du hasierako onarpena ematea Tolosako Udaleko 2020ko lanpostuen zerrendari, aktari lotzen zaion I. eranskinaren arabera.

4. 8/2020 KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEA, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN. 879/2020 ALKATETZA DEKRETUA BALIOZTATZEA.

Parte-hartzeak:

- ... Begoña Tolosa Mendia, Ogasuneko zinegotzi delegatua: “COVID 19aren ondorioak arintzeko sektore eta kolektibo desberdinei laguntzeko eta babesteko Suspertu Plana martxan jarri zuen Udalak eta horren barruan garatzeko zeuden lerro desberdinetako bat zen autonomo eta mikroenpresei zuzenduriko dirulaguntzak hainbat gastuei aurre egiteko. Horretarako 725.000 euro bideratu genituen gastu korrientei gehienbat aurre egiteko. Horretaz aparte, Gipuzkoa Foru Aldunditik beste diru lerro bat atera egin behar zen udaletxetik kudeatu egingo ditugunak eta zuzenduta merkataritza, ostalaritza eta pelukeriei. Haiek euren bideratzen dute nola suspertu Tolosarentzat 70.000 euro eta guk nola ez genekien zenbateko kopurua izango zen badaezpada ere, beste 25.000 € jarri genituen horretarako. Horregatik 8. kreditua aldaketa ikusten horretan duguna banatuta bi partidatan, bata, 725.000 eurokoa, dagoena jarrita Garapen ekonomikora, eta, bestea, 25.000 eurokoa. Bien batura 750.000 denera, gehigarri modalitatekoa eta gerakinak erabiliz, kasu honetan dekretuz. Kasu honetan aipatu genuen baita ere batzordean guk berez onartu genuen azkeneko kreditu aldaketa 6. izan zela. Aplikazio berria etorri zen eta departamentuan proba batzuk egin ziren, baina ez zen ondo joan eta borratu nahi izan genuenean ezin zen borratu, eta, horregatik aipatu beharra dago 7. kreditu aldaketa ez dela existitzen. Horregatik daukagu orain gure 8. Hau dago lotuta orain tratatuko dugun 5. gaiarekin.”
- ... Ander Figuerido Zubiria (EHBILDU): “Lehenik eta behin esan neurri egokia iruditzen zaigula, autonomo eta enpresa txikiek ondorio latzak jasan dituztelako pandemia honekin, eta egoera xamurtzeko laguntza hau beharrezkoa ikusten dugu. Maiatza hasieran aurkeztu genuen COVID-19aren ondorio sozioekonomikoei aurre egiteko proposamenean jasotzen genuen neurrietako bat da izan ere. Sentimendu gazi gozoa dugu, pozik gaude martxan jarri delako, guk proposatu bezala, beste hainbat neurrien antzera, batzuk handiak, dirulaguntza hau edota bertako kontsumoa sustatzeko bonoena, azken hau gure ustez berandu eta bere funtsa nolabait galduta egikaritu zen arren, eta besteak txikiak, zerkausiko goiko terraza irikitzearena esaterako, guztiak egingarriak, egiaztatzen ari den bezala. Baino aldi berean penaturik gaude, neurri guzti



hauek elkarlanean aurrera eramatea posible zelako. Oraintxe aipatu dudan dokumentu hori aurkeztu genizuenean, maiatzaren 6an, zuk Olatz (alkateari zuzenduta) aipatu zenuen filosofian bat gentozela, eta saiakera egingo zenutela dokumentu bateratu bat egiteko, baino oraindik zain gaude... Askotan aipatu dugu, kogobernantza ereduaren alde egiten dugula, benetako auzolana, eta are gehiago pandemia hau pairatzen ari garen garai malkartsu honetan. Dena dela, gure ustez dirulaguntza gehiagoren premia badago, eta hauek martxan jartzeko, beste behin, gure elkarlanerako prestutasuna mahai gainean jartzen dugu. Pandemia honen ondorio sozioekonomikoak ertz asko ditu, eta hauek leuntzeko neurri desberdinak hartu beharko ditugu, instituzio guztietatik. Adibide gutxi batzuk jartzeagatik, udalekuak bertan behera geratu diren honetan familia kontziliatorako laguntzak zabaldu daitezke, Villabonan bezela; zoritxarrez, askok ez dute hau beharko etxean direlako, ERTE/langabezia egoeran, hauek ere bultzada bat beharko dute. Eta nola ez honek eragiten dituen pobrezia eta oinarrizko beharrak asetzeko zailtasunak, elikadura kasu, hor lagundu beharko ditugu Zutani bezalako eragileak. Ezin ahaztu ere etxe kaleratze arriskuan daudenak, ez dira gutxi, eta uste dugu etxebizitza sozialen parkea handitzeko beharra inoiz baino ageriagoa dela. Eta honekin lotuta, gure eskumena ez den arren, etxebizitzaren salneurri eta alokairuen zenbatekoen gehiegikeriarekin amaitzeko neurri eraginkorrak hartzeko garaia dela uste dugu. Ez dira gutxi berehalako etorkizunean ditugun erronkak, egin dezagun ba, ahal den heinean, bidea elkarrekin, Tolosarron ongizatea bermatzeko helburu bakarrarekin.”

... Alkatea: Ados nago esandakoarekin baina aipamen bat. Esan duzu berandu gabiltzala. Beste tokietan ez bezala, Tolosan, bonuak aurrenetarikoak izan dira. Egia esan, lehen aipatu dudan bezala, erabaki asko hartu behar izan ditugu, azkarrek, inoiz onartu ez diren laguntzat. Udaleko egunerokotasuna gainean dugu. Aipatu duzun puntu bat ere udalekuarena, Udaleko kanpaina dagoeneko Tolosaldea Garatzenekin foro bat eratu da eskualdeko beharrak aztertzeko. Udalekuetako antolatzaileak familiekin kontaktuan jarri dira. Pobreziarena zer esanik, partidak handitu egin dira, Zutani elkarteari ere bai.”

... Ander Figuerido Zubiria (EHBILDU): “Aipatu dezuna bonoena, gure proposamena zen establezimenduak itxita zeudenean laguntza hori eskaintzea, horregatik esan dugu gure ideiatik berandu egin zela, beste herrietan egin denarekin ez gara sartuko, gure proposamena hori zen. Eta esan dezuna, mahai gainean dauden gai guzti hoiekin, gu berriz ere prest gaude elkarlanean aritzeko.”

ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO 2020KO UZTAILAREN 22KO IRIZPENA

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 2020/8 espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa. Aldaketak hauek izan dira:



TOLOSAKO
UDALA

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egunoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 1100.471.01.430.00 2020	DIRULAGUNTZAK ENPRESEI. GARAPEN EKONOMIKOA	0,00	725.000,00	725.000,00
1 1100.771.01.430.00 2020	KAPITAL DIRULAGUNTZAK. GARAPEN EKONOMIKOA	0,00	25.000,00	25.000,00
GUZTIRA		0,00	750.000,00	750.000,00

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 870.01 2020	ALTXORTEGIKO GERAKINA	750.000,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			750.000,00

Kontuhartzaileak egindako txostenaren arabera, espedientea bat dator aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Maiatzaren 12ko, 3/2020 Foru Arauak, 2. artikuluan, adierazten du COVID-19aren ondorioei aurre egiteko neurriei dagozkien kreditu gehigarrien espedienteak Alkatearen dekretu bidez izapidetuko direla, eta hurrengo Osoko Bilkuran baliozkotuko direla.

Gaia aztertu ondoren, bozkatu egin da, eta emaitza hau izan da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Jose Mari Villanueva Telleria, Ander Figuerido eta Garbiñe Marzol Ormazabal.

Aho batez onartu da.

Hori dela eta, batzordeak



DIKTAMINATU DU

Lehenengoa.- Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 8/2020 espedientearen berri Udalbatzari ematea, honek baliozkotu dezan egiten duen hurrengo bilkuran. Espedienteak proposamenean ageri den partidakako xehetasuna eta ondorengo kapitulurako laburpena du:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
4	TRANSFERENTZIAARRUNTAK	725.000,00
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	25.000,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		750.000,00

FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8	FINANTZA AKTIBOAK	750.000,00
GUZTIRA		750.000,00

Bigarrena.- Ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria bere eta Kristina Pelaez Errazkin zinegotziaren izenean, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria

Beraz, Udalbatzak, aho batez, **onartu du** 8/2020 kreditu aldaketarako espediente eta 879/2020 Alkatetza dekretua balioztatzea.



5. HASIERAKO ONARPENEA EMATEA 2020KO DIRULAGUNTZEN ERANSKINAREN ALDAKETEI 2-2020.

ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO 2020KO UZTAILAREN 22KO IRIZPENA

2020ko dirulaguntzen eranskinean, COVID-19aren krisiari aurre egiteko ondorengo bi dirulaguntza berri hauek sartzea proposatu da:

Partida	Onuraduna IZENA	Helburua	Behin betiko Aurrekontua 2020	Tipoa
1100.471.01.430.00	ENPRESAK	Dirulaguntzak. COVID-19	725.000,00	izendunak
1100.771.01.430.00	ENPRESAK	Dirulaguntzak. COVID-19	25.000,00	izendunak

Gaia aztertu ondoren, bozkatu egin da, eta emaitza hau izan da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Jose Mari Villanueva Telleria, Ander Figuerido eta Garbiñe Marzol Ormazabal.

Aho batez onartu da.

Hori dela eta, Batzordeak

DIKTAMINATU DU

Lehen.- Hasierako onarpena ematea dirulaguntzen eranskinaren ondorengo aldaketari :

Partida	Onuraduna IZENA	Helburua	Behin betiko Aurrekontua 2020	Tipoa
1100.471.01.430.00	ENPRESAK	Dirulaguntzak. COVID-19	725.000,00	izendunak
1100.771.01.430.00	ENPRESAK	Dirulaguntzak. COVID-19	25.000,00	izendunak

Bigarrena.- Osoko Bilkuraren hasierako onarpenaren ondoren, 2020ko dirulaguntza eranskinaren aldaketa hamabost laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta, era berean, Udaletxeko iragarki taulan jarriko da, interesdunek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamaziorik edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aipatutako aldaketa behin betiko onartutzat joko da.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:



Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria bere eta Kristina Pelaez Errazkin zinegotziaren izenean, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria

Beraz, Udaltzako, aho batez, erabaki du hasierako onarpena ematea 2020ko dirulaguntzen eranskinaren 2-2020 aldaketari.

6. 2020KO ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERAK BURUTZEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAREN AKATS ZUZENKETAREN BERRI EMATEA.

Ogasuneko zinegotzi delegatuak Ordenantzaren akats zuzenketaren berri eman du.

ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO 2020KO UZTAILAREN 22KO IRIZPENA

Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatiko tasak arautzen dituen ordenantza.

AKATS ZUZENKETA

Ordenanza fiscal reguladora de las tasas por prestación de servicios públicos y realización de actividades

CORRECCIÓN DE ERRORES

2.1.6 Eranskina: HONDAKINEN BILKETA ETA EZABAKETA

Anexo 2.1.6 SERVICIO DE RECOGIDA Y ELIMINACIÓN DE RESIDUOS

2019ko irailaren 26ko Osoko Bilkuran, hasierako onarpena eman zitzaion 2020 urterako Ordenantza fiskalen aldaketari.

En el Pleno de 26 de septiembre de 2019 se aprobó inicialmente la modificación de las Ordenanzas Fiscales para el año 2020.

Bertan, KPIa igotzea onartu zen, hondakinen kasuan izan ezik, kasu horretan %5eko inoera erabaki zen.

En ella se aprobó subir el IPC, salvo en el caso de los residuos, en cuyo caso se decidió un incremento del 5%.

Gauzak honela, akats materiala antzemandan, erabaki hau tarifen taulan

No obstante, se ha detectado un error material al reflejar este acuerdo en la tabla



zehazterakoan, ez delako egoki aplikatu %5eko igoera hondakinen kasuan, eta ondorioz, 2020rako onartu eta 2019ko abenduaren 4ko GAO n (232 zkia.) argitaratutako tarifak ez dira zuzenak.

de tarifas, al no aplicarse adecuadamente un incremento del 5% en el caso de los residuos, por lo que las siguientes tarifas aprobadas para 2020 y publicadas en el BOG nº 232 de 4 de diciembre de 2019 no son correctas.

	HONDAKINEN BILKETA ETA EZABAKETA	SERVICIO DE RECOGIDA Y ELIMINACION DE RESIDUOS	EUROAK 2019	AKATSA ERROR EUROAK 2020
	Etxebizitzak (jarduera ekonomiko gabe)	Viviendas (sin actividad profesional)		
1	Orokorra	General	123,60	124,20
2	Auzokonposta	Auzokonposta	99,25	99,70
3	Autokonposta	Autokonposta	86,50	86,95
4	Gazte lokalak	Locales de jóvenes	123,60	124,20
5	Eranskinen 1.multzoan daudenak	Los del 1. grupo del anexo	123,60	124,20
6	Eranskinen 2.multzoan daudenak	Los del 2. grupo del anexo	247,05	248,30
7	Eranskinen 3.multzoan daudenak	Los del 3. grupo del anexo	494,25	496,70
8	Eranskinen 4.multzoan daudenak	Los del 4. grupo del anexo	2.434,65	2.446,80
9	Eranskinen 5.multzoan daudenak	Los del 5 grupo del anexo	6.177,80	6.208,65
	Garaje eta lokal edo behe itxia	Garajes y locales o bajos cerrados		
10	Lokal itxia eta 1-4 plazako garajeak	Locales cerrados y garajes de 1 a 4 plazas	38,20	38,40
11	5-25 plazako garaje kolektiboak	Garajes colectivos de 5 a 25 plazas	163,10	163,95
12	25 baino gehiagoko garaje kolektiboak	Garajes colectivos de más de 25 plazas	337,05	338,75
13	Industria	Industrias	337,05	338,75

Zuzenketa eginda, honela gelditzen da 2.1.6. Eranskina "Hondakinen bilketa eta ezabaketa" 2020. urterako:

Hecha la rectificación, el anexo 2.1.6. "Servicio de recogida y eliminación de residuos" para el año 2020 queda de la siguiente manera:

	HONDAKINEN BILKETA ETA EZABAKETA	SERVICIO DE RECOGIDA Y ELIMINACION DE RESIDUOS	EUROAK 2020
	Etxebizitzak (jarduera ekonomiko gabe)	Viviendas (sin actividad profesional)	
1	Orokorra	General	129,80
2	Auzokonposta	Auzokonposta	104,20
3	Autokonposta	Autokonposta	90,85
4	Gazte lokalak	Locales de jóvenes	129,80
5	Eranskinen 1.multzoan daudenak	Los del 1. grupo del anexo	129,80
6	Eranskinen 2.multzoan daudenak	Los del 2. grupo del anexo	259,40
7	Eranskinen 3.multzoan daudenak	Los del 3. grupo del anexo	518,95
8	Eranskinen 4.multzoan daudenak	Los del 4. grupo del anexo	2.556,40
9	Eranskinen 5.multzoan daudenak	Los del 5 grupo del anexo	6.486,70
	Garaje eta lokal edo behe itxia	Garajes y locales o bajos cerrados	
10	Lokal itxia eta 1-4 plazako garajeak	Locales cerrados y garajes de 1 a 4 plazas	40,10
11	5-25 plazako garaje kolektiboak	Garajes colectivos de 5 a 25 plazas	171,25
12	25 baino gehiagoko garaje kolektiboak	Garajes colectivos de más de 25 plazas	353,90
13	Industria	Industrias	353,90



TOLOSAKO
UDALA

Udalbatzako kideak jakinaren gainean geratu dira.

7. 2019KO TOLOSAKO UDAL SEKTOREAREN KONTU PUBLIKOAREN KONTU OROKORRA BEHIN BETIKO ONARTZEA.

Jarduneko Kontuhartzaileak irizpenaren azalpenak eman ditu.

ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO 2020KO UZTAILAREN 22KO IRIZPENA

Aurrekariak

2019ko Udal Sektore Publikoaren Kontu Orokorra aurkeztu da.

Kontuhartzaileak azaldu ditu Kontu Orokorra osatzen duten kontuak:

1. Udalaren Kontua.
2. Iurreamendi Egoitzaren Kontua.
3. Erretengibel SAren Kontua.
4. Tolargi SLren Kontua.
5. Tolosa Lantzen SAren Kontua.
6. Tolosa Gasa SAren Kontua.

Eta bakoitzak biltzen dituen egoeren eta kontuen edukia.

Dokumentu osagarrien artean Udalaren mende eta kontu orokorrean integratu gabe dauden ondorengo entitateen urteko kontuak ere sartu dira:

- Tolosaldea Garatzen SA.
- Zazpiburri SA.
- Apattaerrekako Industrigunea SL.

Batzordekideek Kontu Orokorraren laburpena aztertu dute. Laburpen honetan honako dokumentu hauek bildu dira.

1. Udalaren dokumentazioa.

1.1. Egoera Balantzea 2019-12-31n.

1.2. Ekonomia eta ondare arloko emaitzaren kontua.



TOLOSAKO
UDALA

- 1.3. Ondare garbiaren aldaketen egoera-orria.
- 1.4. Diru-fluxuen egoera orria.
- 1.5. Aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria.
- 1.6. Memoria.
- 1.7. Aurrekontu emaitza eta kontabilitate emaitza berdinkatzeko egoera orria.

2. Iurreamendi Egoitzaren dokumentazioa.

- 2.1. Balantzea 2019-12-31n.
- 2.2. Ekonomia eta ondare arloko emaitzaren kontua.
- 2.3. Ondare garbiaren aldaketen egoera-orria.
- 2.4. Diru-fluxuen egoera orria.
- 2.5. Aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria.
- 2.6. Memoria.
- 2.7. Aurrekontu emaitza eta kontabilitate emaitza berdinkatzeko egoera orria.

3. Erretengibel SAren dokumentazioa.

- 3.1. Egoera Balantzea 2019-12-31n.
- 3.2. Galera-Irabazien Kontua.
- 3.3. Memoria.

4. Tolargi SLren dokumentazioa.

- 4.1. Egoera Balantzea 2019-12-31n.
- 4.2. Galera-Irabazien Kontua.
- 4.3. Memoria.

5. Tolosa Lantzen SAren dokumentazioa.

- 5.1. Egoera Balantzea 2019-12-31n.
- 5.2. Galera-Irabazien Kontua.



TOLOSAKO
UDALA

5.3. Memoria.

6. Tolosa Gasa SAren dokumentazioa.

6.1. Egoera Balantzea 2019-12-31n.

6.2. Galera-Irabazien Kontua.

6.3. Memoria.

7. Dokumentazio osagarria.

7.1. Tolosaldea Garatzen SAren Urteko Kontuak.

7.2. Zazpiturri SAren Urteko Kontuak.

7.3. Apataerrekako Industrigunea SLren Urteko Kontuak.

Ekitaldi bakoitzeko Kontu Orokorrari dagokionez, hurrengo ekitaldiko maiatzaren 15a baino lehen Kontu batzorde bereziak txostena eman beharko du.

Kontu Orokorra eta Kontu Batzorde Bereziaren txostena jendaurrean egongo dira hamabost egunez. Denbora horretan interesdunek erreklamazioak, oharak edo eragozpenak aurkeztu ahal izango dituzte. Kontu Batzorde Bereziak horiek aztertu ondoren, beste txosten bat emango du.

Kontu Orokorra Udalbatzari aurkeztuko zaio, Kontu Batzorde Bereziaren txostenekin eta aurkeztutako erreklamazio eta eragozpenekin batera, hala egokituz gero, uztailaren 31 baino lehen onar dezan.

Araubide aplikagarria

- 21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa; 62, 63 eta 64. artikulua.
- 86/2015 Foru Dekretua, abenduaren 15ekoa, Gipuzkoako Toki Entitateen kontabilitatearen arau esparrua arautzen duena; 1. eranskinaren II. kapitulua.



TOLOSAKO
UDALA

Kontu Orokorra behar bezala justifikatua geratu da, dokumentu horiek aztertu ondoren, eta Kontu Orokorra, Aurrekontuarekin, Gastuen Egoera aldatzeko erabakiekin, Aurrekontuaren Likidazioarekin, hala nola Aurrekontu-Ondare kontabilitatea osatzen duten beste liburu eta dokumentuekin konparatu eta gero.

Ikusirik aplikagarria den arautegia, jaulkitako txostenak eta espedientea tramitzeko eta onartzeko prozedura, aurkeztutako proposamena bozkatu da:

Aldeko botoak: Begoña Tolosa Mendia, Xabier Balerdi Tolosa, Nerea Letamendia Belloso, eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Abstentzioa: Aitana Amundarain Eskisabel, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Ander Figuerido Zubiria.

Hori dela eta, Batzordeak

DIKTAMINATU DU

Lehena.- 2019ko Udal Sektore Publikoaren Kontu Orokorrari aldeko txostena ematea.

Bigarrena.- Kontu Orokorra, Kontuen Batzorde Bereziaren txostenarekin batera, jendaurrean jartzea hamabost egunetan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu ondoren, epealdi horretan interesdunek erreklamazioak, ingerak zein oharrak aurkeztu ahal izateko.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Aitana Amundarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria bere eta Kristina Pelaez Errazkin zinegotziaren izenean, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria

Beraz, Udalbatzak, aho batez, **erabaki du** behin betikoz onartzea 2019ko Tolosako udal sektorearen kontu publikoaren kontu orokorra.



TOLOSAKO
UDALA

8. UDAL SOZIETATEETAN ETA GAINERAKO ERAKUNDEETAN KARGU-UZTEEN ETA IZENDAPENEN BERRI EMATEA.

Idazkariak udal sozietatean kargu-uzteen eta izendapenen berri eman du.

TOLOSA LANTZEN SA

Tolosa Lantzen SAko Batzar Unibertsalak, ondoren zehazten diren hamazazpi kontseilariak osatutakoak, 2020ko uztailaren 30ean, aho batez, besteak beste, erabaki hauek hartu zituzten:

- *Onartzea Tolosa Xabier Balerdi Tolosa jaunak Tolosa Lantzen SA sozietateko Administrazio Kontseiluko kontseilari eta presidente izateari uzteko eginiko eskaera.*
- *Onartzea Joseba Koldo Ormazabal Lopez jaunak Tolosa Lantzen SA sozietateko Administrazio Kontseiluko kontseilari izateari uzteko eginiko eskaera.*
- *Onartzea Olatz Peon Ormazabal andrearen Tolosa Lantzen SAko Administrazio kontseiluko kontseilari eta presidente izateko izendapena.*
- *Onartzea Jose Mari Villanueva Telleria jauna Tolosa Lantzen SAko Administrazio kontseiluko kontseilari izateko izendapena.*

Udalbatzako kideak jakinaren gainean geratu dira.

9. ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2020KO EKAINAREN 1ETIK 30ERA (2020/749-2020/977).

Alkatetzak 2020ko ekainaren 1etik 30era (2020/749-2020/977) bitartean egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Udalbatzako kideak jakinaren gainean geratu dira.

10.MOZIOA, IRREGULARTASUN ADMINISTRATIBO EGOERAN DAUDEN ETORKINENTZAKO EZOHIKO ERREGULARIZAZIO PROZEDURA ABIARAZTEAREN ALDE.

Parte-hartzeak:

- ... Jose M^a Villanueva Telleria (PSE-EE): *“Nire esperientzia eskolan. Erregularizazio prozesua konplexua da, zorionez horrelako egoerako ikasleak. Kontraesana dago, Gipuzkoa Foru Aldundia lan ona egiten ari da gazteekin, jaso, babestu eta ikasketak egiteko aukera ematea. Esfortzu handia egiten ari dira. Horretarako egoeran aurkitzen dira, praktika enpresan eta gero enpresak ezin du gelditu langilearekin, gutxienez urte bat. Egoera konplexua, eta gure programetan dago*



diskriminazioarekin bukatzea. Espainiako gobernuan osatzen duten alderdiak esfortzu handi egin behar dutela. Bestetik, gure jaiotze tasa hor dago, eta gure bizi kalitatea ona izateko ezinbesteko izango da etortzen direnei artatu, bideratu eta integratzea. Milaka gazte etortzen ari dira, askotan engainatuta, beste batzuetan mafian eskuetan geratzen dira. Gogorra da bizitzen duen egoera. Europako gobernu guztiek Afrikako lurraldeekin lankidetzaz hitzarmenak sinatu behar dituzte. Babesa eman behar zaie. Erabat ados mozioarekin.”

... Xabier Martinez Quinquilla (EHBILDU): *“COVID 19ak gogorki astindu du gure gizartea, maila sozialean zein ekonomikoan. Denok jasan ditugu bere eraginak modu batera edo bestera, baino, noski, batzuek gogorrago. Azken egun hauetan, askotan entzun dugu pandemiak ez duela bereizketarik egiten, baina tamalez, pandemiak bereizketak egiten ditu, feminizatutako sektoreetan gogorrago kolpatu ditu, eta egoera irregularrean dauden etorkinak ere. Beti gertatzen den bezala, egoera zaurgarrian dauden kolektibo horiek izaten dira krisia gehien pairatzen dutenak eta justu funtsezko eskubidean aitortzen ez zaizkien herritarrak. Jakina da, adibidez, zaintzaileak egoera erregularrean egiten dute lana, asko eta asko daudela kontraturik gabe. Askok lanik geratu dira kutsatuak ez izateko eta beste batzuek, bereziki konfinamendu garaian, familiak bete duelako langile hauek egiten zuten lana. Norik babesten ditu beraien eskubideak? Bestalde, denok ikusi ditugu, esate baterako, Lleidako tenporeroak jasaten ari diren egoerak e.a. Gurea etorrita etorkin hauen inguruan erregularizaziorako pausoak ematen hasita gaudela hauen eskubideen alde urratsak ematen ari dira European, adibidez Portugalen erregularizazio masiboa egitea erabaki zuen. Italiak ere pauso batzuk eman ditu erregularizazio masiborantz nahiz eta pausoak ez diren izan hain sakonak. Hau esan da, Portugalek hartutako bide hori jarraituz Espainiako estatuak etorkinen erregularizaziorantz urratsak eman beharko ditugula uste dugu, orain inoiz baino gehiago, Covid ondorioz egoera zaurgarrian geratu direlako asko eta asko. Hau guztia onartuta pozgarria iruditzen zaigu udalbatza honek SOS arrazakeriak aurkeztutako mozio hau aho batez onartzea eta Espainiako gobernuari eskatzea ez ohiko erregularizazio prozedura abian jar dezan pertsona hauek bere eskubideak izan dezaten eta gainerako herritarrekin berdintasun egoera batean egoteko.”*

... Alkatea: *“Bere bizitza proiektua garatzera Euskadira datozen pertsonen erregularizazioa da mahaia gainean dagoen arazo kezagarria orain bizi dugun krisi honen aurretik ere, Eusko Jaurlaritzan jada bosgarren Ekintza Plan sustatu 2018-2020 egoera konkretu honi aurrera egiteko. Xabierrek aipatu du etorkinen egoera zaurgarriagoa dela. Gehien bat, bi arrazoi nagusiarengatik, lan egoera ez egonkorra izatea eta bigarrena da gizarte eta familia sare ahulago izatea. Krisia egon da ere atzerritar askok erabaki dute herrian geratzea. Beraz, egoera kontutan hartu behar dira. Aipatu nahi dut migrazioaren gaia gurean Eskualde mailan kudeatzen dela eta aipatu prestatzen diren programak daukaten garrantziarengatik. Baita ere, CEAR-ekin Zuloaga Txikin egiten den lanketa. Baina harreretatik haratago dago sortzen diren egoeraren aurrean eman behar diren aurrerapausoak. Gure helburua da Euskal gizarte kohesionatua osatzea, herritarren guztien eskubideetan oinarrituta, aniztasun kultura errespetatuz eta bizikidetzaz klabe honetan oinarrituz. Horregatik guk ere babestuko dugu SOS Arrazakeriak aurkeztutako mozioa.”*



TOLOSAKO
UDALA

Alkateak SOS Arrazakeriak aurkeztu eta Udaleko hiru taldeak adostutako mozioa irakurri du.

Mozioak honela dio:

“Mozioa, irregulartasun administratibo egoeran dauden etorkinentzako ezohiko erregularizazio prozedura abiaraztearen alde

Pandemiaren ondorioei aurre egiteko, administrazioek, alde batetik, salbuespenezko neurriak hartu beharko dituzte, eta herritarrek, bestetik, ahalik eta zailtasun gutxien topatuz beren gaitasun guztiak garatu egoera hontara moldatzeko.

Korporazio honek badaki gure bizilagunen artean irregulartasun administratiboko egoeran dauden etorkin asko daudela, egoitza- eta/edo lan-baimenik ez dutelako. Auzotasun-denbora oso anitza da: badira gure hirian urteak daramatenak baina ezin izan dutenak baimena berri- lan-baldintzak betetzeko zailtasunak dituztelako, eta badira egonaldi berriagoa dutenak ere.

Atzeritartasun Legeak bi kategoriatan banatzen ditu herritarrak: eskubide guztiak aitortuak dituztenak eta ez dituztenak. Bidegabekoa den lege honek pertsonen zaurgarritasunaren iturria du jatorria eta euren eta senideen bizitzak aurrera ateratzea posible duten herrialdeetan eragozpen handiak sortzen ditu. Gainera, zailtasun handia sortzen du pertsona horiek beren bizi proiektuak aurrera ateratzeko eta diru laguntzak jaso behar izatera bultzatzen ditu.

Ezohiko egoera honi aurre egiteko, udalerriko bizilagun guztien ahalegina beharko da, baita administrazio egoera erregularizatuta ez dutenena ere. Langabeziak esponentzialki gora egin duen eta egingo duen arren, atzeritarrak oraindik ere beharrezkoak dira nekazaritzan edo etxeko enpleguan lanpostu jakin batzuk betetzeko, adibidez.

Korporazio honek Espainiako gobernuak ezohiko erregularizazio prozedura bat abiaraztearen alde egiten du, iraganean behin eta berriz egin den bezala, pertsona horiek beren eskubideak aitortuta ikus ditzaten eta hiri honetako gainerako herritarrekin berdintasunean egon daitezen.

Era berean, Eusko Legebiltzarrari zuzentzen zaio, iraganean ildo horretan egindako erabakiei jarraituz, neurri hori berriz eskatzeko Espainiako gobernuari.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria bere eta Kristina Pelaez Errazkin zinegotziaren izenean, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.



Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** mozio hau: Irregularitasun administratibo egoeran dauden etorkintzako ezohiko erregularizazio prozedura abiaraztearen alde.

11. ORAIN ARDURA HERRITARREN EKIMENAREN MOZIOA, TOLOSAKO EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTA.

Parte-hartzeak:

... Jose M^a Villanueva Telleria (PSE-EE): *“Adierazi nahi dut gure elkartasuna aipatzen diren sektoreekin guztiekin, osasun eta hezkuntzako sistemako langileak, egoitzetan dauden langileak, gizarte zerbitzuetako langileak, transportistak, ertzainak, poliziak, e.a. COVID 19ak, logikoki, hankaz gora jarri du gure jarduera politikoa eta gaur ez dauka zer ikusi orain zortzi hilabetekoarekin. PIB, %15a jaitsi bada lehentasunak zehazteko garaia iritsi da. Akordioak ezinbestekoak izango dira bai Espainia mailan, bai hemen egoera honi aurre egiteko. Lehena, Osasun sistema publiko ona defendatu behar da. Hau gabe, beste esparru ekonomiko eta sozialak behera egingo dute. Bigarren sektoreak inbertsio ikaragarriak behar ditu, eta hauek kanpotik erakarri beharko ditugu. Hirugarren sektorea -turismoa ere- Euskal Herrian oso sektore garrantzitsua da. Hori lortzen bada kontsumoa handituko da. Hurrengo aurrekontuetan- Espainia, Euskal Herrian eta hemen- zor publikoa kontrolatzea garrantzi handia izango du. Zor publikoaren sistema berrian alderdi politiko guzti bat egin beharko genuke. Beste erreformak ere egin beharko ditugu: digitalizazioa, hezkuntza sistemak, aldaketa klimatikoa... Arlo honetan ezinbestekoa izango da kotxe pribatuaren erabilera mugatzea eta horretarako garraio publiko modernizatua behar da, ez jarraitzea XIX. mendean egindakoarekin. Espainiak arazo geografiko handiak ditu eta honek trenbidearen sarearen atzerapena ekarri zuen. Ezin dugu jarraitu dugun trenbidearen sistemarekin. Orain dela 15 urteko adreiluaren kulturaren, AHT eraikitze hartu ziren hainbat erabaki gaizki zeuden, eta beharrik gabeko tokietarako zabaldu zen. Hori gaizki egin zen. Baina gaur egun, AHT azpiegitura %80a eginda dago eta orain bai, azpiegitura honi amaiera eman behar diogu. Gainera, momentu batean jendeak garraio modernoaren eskaintzaz kontatzen badu, kotxea utziko du eta garraio publiko erabiliko du.”*

... Andu Martinez de Rituerto Arregui (EHBILDU): *“Garraio publikoaren defentsa irmoa egiten dugu eta trenaren aldeko jarrera irmoa, EHBilduk horretan ez du zalantzarik. Gertatzen dena da, nire ustez, hasiera hasieratik AHT neurtu gabeko inbertsioa izan dela. Egiten hasi aurretik 2004n, EHU Ekonomia jasangarria diseinatzerantz bideratzen du bere ikerlariak Roberto Bermejo Ekonomian doktore den EHUKo irakasleak. 2004an aurkeztu zuen txostenak, Analisis de rentabilidad del proyecto de la Y Vasca y bases para una estrategia ferroviaria alternativa” delakoak, Bere lan mardula lan akademikoa eta ondorioetan esaten zuen AHT proiektuak ez zuen errentagarritasunik; ez ekonomikorik, ez sozialik, ez zuela konponduko garraioaren arazoa. Eta herrialdea fusionatu beharrean lurraldea zatikatuko zuela. Noski, behar dugula, pentsaezina da Gasteiza joatea trenean, gaur egun odisea bat da, baina aldi berean AHT egiten denean antzeko odisea izango da eta garestia, gainera. Mantenimendua ere oso garestia da. Astigarragara joan beharko dugu trenea hartu eta Gasteiza joan, ez dakit denboran*



asko aurreztuko dugun. Kontua da egindako azterketa ondoren, obrak ere atzeratzen joan dira, aurrekontuak handitzen joan dira, eta tristeena da Bermejo jaunak egindako ondorioak betetzen joan direla. Azken bi urteetan 2018ko ekainean uste dut eta orain dela hilabete bat ere Europako Kontu Epaitegiak gauza kezagarriak esan ditu nire usteetan, 2018an Europako auzitegiak egin zuen lanaren ikerketan, txostenean aipatzen zuen agerian uste zuela sarea mosaikoa zela, estatuaren koordinaziorik gabekoa zela. Askotan trenak diseinatzean kontuan izan behar da erabiltzaileen kopurua. Horretaz, lan asko egin dira. Munduan soilik dira eraginkorrek bi linea bakarrak dira Tokiokoa milioi erabiltzaileekin eta bestea Parisen ingurukoa. Bestalde, interesgarria da aipatzen zuena, EAE trenbide sarea tunelez josita dago, ezin da pasa orduko 160 km-tik gora. Honek ere kezka sortzen du, ez ote zen hobea dugun trenbide sarea indartzea eta tren kopurua hobetzea. Eta orain dela hilabete bat Europako Batasuneko Epaitegiak esaten zuen gutxienez 29ko atzerapena iragarri zuen konexioetan Horrek esan nahi 2037an izango dugula aukera Parisera joateko Astigarragatik. Aipatu ditudan erreferentzi guztian akademikoak dira eta erakunde publikoetako datuak dira. Mozioa irakurritakoan aipatu den bezala behar asko daude, babes soziala, osasungintza eta hezkuntza publikoa sustatu, tokiko ekonomia sustatu e.a. Beraz, mozioan esan bezala behar horietara bideratu behar dugula uste dugu.”

... Alkatea: “Euskadi- Euskal Herria, errealitate politikoa eta nazionala da, non bere zatiketa administratibotik abiatuta errealitate bat eraiki duen, ekonomikoki lehiakorra eta teknologian balio altua duena, sozialki anitza, solidarioa eta ondorioz kohesionatua dena, eta munduan gertatzen diren aldaketen aurrean irekia geure euskal nortasuna zaintzen duena. Beti konponbide orekatuak planteatuz, gure garapena eta lehiakortasuna, jasangarritasun sozial eta finantzarioa ezkongarriak eginez, beti ere ingurumenarekin begirunetsuak izanez. Euskadin heldutako giza garapen maila, garapen ekonomikoa eta garapen solidarioa binomioren konbinazioari esker izan da. Coronavirus-aren krisi berriak, Euskadin eragin berezia izan duenak, pertsona askoren bizitzari eta osasun publikoari eragin dio eta gure historia berrian aurrekaririk ez duen krisi ekonomikoa eragiten ari da. Horregatik, gaurko egoerak, erakunde guztien aurrekontuen lehentasunak berrikustea behartzen ditu, diputazioaren, udaletxeen, Eusko Jaurlaritzaren eta zeinen politika publikoek eragiten diguten gainerako erakundeena. Arreta berezia jarritz, egoera honen aurrean ahulenak diren pertsonen eta gaurko osasun krisiak eta krisi ekonomikoak eragindako pertsonen beharrei aurre egiten. Gaurko, hezkuntza, laguntza eta osasun-sistema asistentziala, indartuz eta mantenduz eta pertsona kalteberenei ekonomikoki lagunduz. Baina herri honek bere garapen ekonomikoan, ekonomikoki, sozialki eta kulturalki eredu iraunkorrago batenganantz, aurrera egiten jarraitzeko behar dituen apustuak alde batera utzi gabe. Apustu hauen artean, Euskadin eraikitzen ari den abiadura handiko sarea aurkitzen da, zalantzarik gabe, ardatz atlantikoarekin bir-konektatuz eta gure nazioaren egituratzearekin euskal hiriburuak, Baiona-Donosti-Iruñea-Bilbao-Gasteiz, konektatuz, funtsez higikortasun iraunkorrean lagunduko duen azpiegitura. Euskal herriak beti izan du mundu osoan bere lekua izateko asmo demokratikoa. Esperientziak erakusten digu, lortu ahal izateko, oinarritzko baldintzak gutxienez hiru direla: berezko nortasuna, ahalegin iraunkorra eta kohesio soziala. Horregatik guzti honengatik ez dugu mozio honen aurkako



TOLOSAKO
UDALA

botoa emango dugu. Iruditzen zaigu nahastu direla alde batetik proiektua bera AHT egokia den edo ez eta, bestetik, lehentasuna izan behar duen gaurko garaian. Baita ere kezkatzen nau teknikoak izan daitezkeen eztabaidak maila politikara ekartzea. Beste esperientziak izan ditugu beste gai batzuekin eta ez da ona izan. Aipatutako denegatik, guk mozio honi aurkako botoa emango diogu.”

Andu Martinez de Rituerto Arregui EHBILDUko zinegotziak mozioa irakurri du.

Moziok honela dio:

Tolosako EH Bildu udal taldeko kideok, ORAIN ARDURA herritarren ekimenak aurkeztutako mozioa mahai gainean jarri eta gure egiten dugu. Honela dio moziok:

Aste luzeetako sufrimenduaren ondoren, gure senideak erabateko bakardadean hil direnean, pandemiaren aurkako borrokan ospitaleetako langileek lan-baldintza kaskarretan larrua utzi dutenean, egoerari aurre egin ahal izateko adinekoen egoitzetako langileek ezinezkoak egin dituztenean, arnasmugatik ez zegoenean gaixorik zeuden pertsona guztientzat edo testak eta babes-ekipoak falta izan direnean, gizarteak egoera zail honen aurrean bultzatu dituen portaera eredugarriak azpimarratu nahi ditugu, kontaezinak diren elkartasun ekimenekin.

Gizartea erantzunkizun handiz jokatzen ari da krisi larri honetan, eta berak markatzen digu jarraitu beharreko bidea. Horregatik, etorkizun zalantzarriaren aurrean, erakundeak egoerak eskatzen duen mailan egon behar dira, erantzunkizunez jokatzen, eta orain, inoiz baino gehiago, dirua oinarrizko gizarte-zerbitzuetara eta krisia bereziki pairatu duten sektoreentzako laguntzetara bideratzen. Honengatik guztiagatik, “ORAIN ARDURA” ekimena bultzatu dugun pertsonak, elkarteak eta sindikatuek, erakunde eta administrazio publikoei eskatzen diegu Abiadura Handiko Trenaren obra eta proiektuetan gastatzen ari diren funts publikoak oinarrizko behar horietara bideratzea, honako argudio hauetan oinarrituta:

Espainiako estatua munduan miloi bat biztanleko abiadura handiko tren kilometro gehien duen estatua da, Japonia, Alemania, Frantzia, AEB eta beste hainbat herrialderen oso aurretik. Hala eta guztiz ere, azken tokian dago erabilerari dagokionez, eta kilometroko bidaiari-ratio baxuena du. Gainera, gogorarazi behar dugu sustapen ministerioaren datuen arabera, tren bidaiarien %6ak baino ez duela erabiltzen abiadura handiko trena; ohiko trena aldiz, %94ak.

